



2023ko urriaren 16ko Hezkuntza sailburuordearen ebazpena, 18 urtetik gorako pertsonen 2023-2024 ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua lortu ahal izateko proba librei buruzkoa.

Maiatzaren 3ko 2/2006 lege organikoak, Hezkuntzari buruzkoak (LOE), 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, pertsona guztiek izan behar dute, hezkuntza-sisteman eta hezkuntza-sistematik at, bizitzan zehar prestakuntza jasotzeko aukera, haien garapen pertsonal eta profesionalerako gaitasun, ezagutza eta trebetasunak eskuratu, gaurkotu, osatu eta zabaltzeko asmoz. Hezkuntza-sistemak etengabeko hezkuntza sustatzea du helburu, ikaskuntza beste ardura eta jarduera batzuekin bateragarria izan dadin erraztasunak emanez. Halaber, administrazio publikoek dute ikaskuntza malguaren eskaintzak sustatzearen ardura, hezkuntza-sistema inolako titulaziorik gabe utzi zuten pertsonen oinarrizko gaitasunak eta titulazioak eskura ditzaten.

77/2023 Dekretuak, maiatzaren 30ekoa Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak Oinarrizko Hezkuntzaren berariazko curriculuma eta ebaluazioa ezartzen ditu Lehen Hezkuntzaren eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculuma ezartzen duen oinarrizko araubidea eragotzi gabe. Gainera bosgarren Xedapen gehigarri bat ezartzen du eta bertan aipatzen du Lehen Hezkuntzari dagozkion oinarrizko kompetentziak eskuratu nahi dituzten helduei beren egoerara egokitutako eskaintza egingo zaiela, aurrez aurreko hezkuntzaren bidez edo urrutiko hezkuntzaren bidez. Etapa honetako irakaskuntzak modu modularrean antolatuko dira, hiru eremutan, eta, horietako bakoitzean, bi mailatan.

Aipatutako Laugarren Xedapen Gehigarriko 6. artikuluan aurreikusten da hemezortzi urtetik gorako pertsonen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatua zuzenean lortu ahal izateko probak antolatzea aldira, betiere, pertsona horiek funtsezko kompetentziak eta etapako helburuak lortu badituzte. Proba horiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren gutxieneko irakaskuntzak eta antolamendua ezartzen dituen martxoaren 29ko 217/2022 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera antolatu behar dira.

Horiek horrela, prozeduraren eta baldintzen arauak ezarri behar dira, helduek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua eskuratu ahal izateko ez ohiko probaren bidez.

Horregatik,

XEDATU DUT:

1. artikulua.- Helburua.

Euskal Autonomia Erkidegoan 18 urtetik gorako pertsonen 2023-2024 ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua lor dezaten proba libreak zehaztu eta arautzea ditu ebazpen honek helburu.

2. artikulua.- Helburua.

Funtsezko gaitasunak eta etaparen helburuak eskuratu izana erakusten duten parte-hartzaileek gure hezkuntza-sistemaren oinarrizko titulazioa lortu ahal izatea dute 18 urtetik gorako pertsonen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua lortzeko probek helburu.



3. artikulua.- Parte-hartzaileak.

Matrikulatu ahal izango dira proba libreak egiteko ezarritako egunean 18 urte bete edo betetzen dituzten pertsonak eta 2023-2024 ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatua titulua lortzera bideratutako irakaskuntza ofizialetan (aurrez aurrekoak edo urrutikoak) matrikulatuta ez daudenak eta egon ez direnak.

4. artikulua.- Probak egingo diren datak eta tokiak.

1.- Probak azaroaren 24an eta maiatzaren 10ean egingo dira Hezkuntza Sailaren menpeko Bilbo, Donostia-San Sebastian eta Vitoria-Gasteizko Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuko (UHEI) egoitzetan (UOHI ohietan). Ikastegi publiko horien iragarki-tauletan argitara eman beharko dira probak egingo diren datak.

Probak hiru saiotan egingo dira: zientzia eta teknologia eremuko proba goizeko 09:30etik 11:30 era, gizarte-eremuko proba 12:00etatik 13:30era eta komunikazio eremuko arratsaldeko 15:30etik 18:30era.

5. artikulua.- Matrikulazioa.

1.- Hezkuntza Sailaren menpeko Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuak probak egingo direla adieraziko duen iragarkian agertu beharko du, gutxienez, matrikulatzeko epea. 2023-2024 ikasturterako matrikulatzeko ondorengo epeak ezartzen dira: 2023ko urriaren 23tik azaroaren 3ra bitartean azaroko probarako 2024ko apirilaren 8tik-19ra maiatzeko probarako. Epe hori itxi ondoren, eta aparteko arrazoiak egonez gero, ikastetxeko zuzendariak eman ahal izango die beste pertsona batzuei matrikulatzeko baimena.

2.- Probak egin nahi diren Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuko egoitzan egin beharko da matrikula.

3.- Proba libreetan matrikulatzen diren ikasleek [Ikasgunea](#) plataforman kontsultatu ahal izango dute egindako matrikula-eskaeraren egoera, bai eta lortutako eta/edo ukatutako baliozkotzeak eta salbuespenak ere. Aplikazio horretan erregistratzeko, datu pertsonalak, helbide elektronikoa bat eta pasahitz bat beharko dira. Plataforma horretan erregistratzen ez badira, matrikula egin zuten egoitzara jo beharko dute informazio hori lortzeko.

Ikastetxeek NAN edo AIZ ez duten eskatzaileei dagokien HNA identifikazio-zenbakia emango diete, [Ikasgunea](#) atarian argitaratzen diren behin-behineko eta behin betiko zerrendak, salbuespenak, baliozkotzeak eta kalifikazioak kontsultatzeko.

4.- Ikastegi bakoitzeko zuzendaritzak hartuko ditu probak egiteko neurriak.

5.- Matrikula egiteko behar den dokumentazioa:

- a) NAren, Egoiliar-txartelaren, pasaportearen edo norbere nortasuna egiaztatzen duen agiri baten fotokopia (jatorrizkoa eraman beharko du, egiaztatzeko).
- b) Matrikulazio-orria (ebazpen honen I. eranskin gisa sartuta dagoen ereduaren arabera eta ikastetxeak emango duena). Orri horretan ikaslea 2023-2024 ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatua titulua lortzera bideratutako irakaskuntza ofizialetan (aurrez aurrekoetan edo urrutikoetan) matrikulatuta ez dagoela aditzera emateko adierazpen bat sartu beharko da.
- c) Baliozkotzeren bat eskatuz gero, Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolatzeko Liburua edo/eta Ikasketa Historia edo Helduen Hezkuntzako eremuren bat gainditu izanaren egiaztatzea gaineratu beharko du.



- d) Helduek Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzetan matrikulatzeari uko egin diotela egiaztatzen duen agiria, ikasturte horretan hasi badira.
- e) Ezgaitasun-ziurtagiriaren fotokopia edo medikuaren txostena, izangaiak egokitzapen-bitartekoren bat behar badu.

6. artikulua.- Erreferentziako curriculum-esparrua.

77/2023 Dekretuak, maiatzaren 30ekoa Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum-a zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (2023ko ekainaren 09ko EHAA), AGINDUA, 2021eko maiatzaren 20koa, Hezkuntzako sailburuarena, helduen Oinarrizko Hezkuntzaren berariazko curriculum-a zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena eta AGINDUA, 77/2023 Dekretuak, maiatzaren 30ekoa 2021eko abuztuaren 26koa, Hezkuntzako sailburuarena, honen huts-zuzenketa egiten duena: 2021eko maiatzaren 20ko Agindua, zeinaren bitartez helduentzako Oinarrizko Hezkuntzaren berariazko curriculum-a ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

7. artikulua.- Ariketak.

1.- Ariketa bat egingo da hiru esparruetako bakoitzean (Komunikazioa, Gizartea eta Zientzia eta Teknologia). Bakarrik Komunikazio eremuaren kasuan zati desberdinak planteatu ahal izango dira ariketan, hizkuntzaren arabera.

2.- Komunikazio eremuan, atzerriko hizkuntza ingelesa, frantsesa, portugesa, alemana edo italiara izan ahal izango da. Ikastegietan ez badaude hizkuntza horietakoren batean trebatutako irakasleak, Hezkuntza Sailburuordetzak antolatuko ditu atzerriko hizkuntza horretako proba eta zuzentzeko prozesua.

8. artikulua.- Epaimahaia.

1.- Ikastetxeko zuzendaritzak Bigarren Hezkuntzako irakasleen artean proposatutako eta Ikastetxe eta Plangintza Zuzendariak izendatutako epaimahaiburu batek eta beste bi kideek osatuko dute, gutxienez, epaimahaia. Epaimahaiburuak epaimahaiko kideen artean izendatuko du idazkaria.

2.- Hiru eremuetako irakasle banak, gutxienez, egon beharko du epaimahaikideen artean.

3.- Epaimahaiko kideek zerbitzuen ondoriozko kalte ordainak jasotzeko eskubidea izango dute.

4.- Epaimahaiko kideek otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan eta gerora egindako aldaketa 267/2000 Dekretuan, abenduaren 19koan, kalte-ordainei buruzkoan aurreikusitako konpentsazio ekonomikoak jasoko dituzte. Dekretu horren arabera, langileek dietak eta asistentziak jasotzeko eskubidea dute, probak ebaluatzeaz arduratzen diren epaimahaietako kide direnean.

5.- Epaimahai ebaluatzailetako partaideei ezarritako sistemaren araberrako kalte-ordaina ordaintzen zaie, hau da, agindutako zereginetan emandako sei orduko saio bat.

9. artikulua.- Ebaluazioa.

1.- Eremu bakoitza osotara ebaluatuko da eta era honetara: Gutxiegi (GU), Nahiko (NA), Ongi (O), Oso Ongi (OO) eta Bikain (BI). Emaitza zenbakiekin ere adieraziko da, 1etik 10era eta hamartarrik erabili gabe. Hona baliokideak:

- 1. Gutxiegi: 4
- 2. Nahiko: 5
- 3. Ongi: 6
- 4. Oso Ongi: 8
- 5. Bikain: 10



Komunikazio eremuan hiru hizkuntzek % 25etik gorako puntuazioa izango dute.

2.- Probaren kalifikazio globala 3 esparruen batezbestekoa izango da eta hiru esparruak gainditu beharko dira, titulua lortzeko.

3.- Proba egin ondoren, ikastetxeko zuzendaritzak tokian tokiko Hezkuntza Ikuskaritzari bidaliko dio akten kopia (II. eranskina).

10. artikulua.- Ziurtagiriak eta titulazioa.

1.- Parte-hartzaile guztiek izango dute probaren emaitza globalak edota eremu bakoitzarenak egiaztatzeko ziurtagiri bat edukitzeko eskubidea, ikastetxeko idazkariak emandakoa eta zuzendariaren oniritziarekin (III. eranskina).

2.- Hiru eremuak gainditzen dituztenek, ez beste inork, edukiko dute Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua izateko eskubidea eta ikastetxeak tituluak emateko proposamenean sartuko ditu ikasle horiek.

3.- Eremu bakoitza gainditu izana hurrengo deialdietan hartuko da kontuan.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Salbuespenak eta curriculum-egokitzapenak

1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle guztiei aplikatzen zaizkien albuespen eta egokitzapenen araudia aplikatuko da proba hauetan.

2.- 1971 baino lehenago jaio ziren pertsonen euskaratik salbuetsi ahal izango zaie. Horretarako, nahikoa da Nortasun Agirian, Egoiliar-Txartelean, pasaportearen edo norbere nortasuna egiaztatzen den agiri batean agertzen den jaiotze-data ikustea.

3.- Euskarazko albuespena emango zaie, baita ere, Oinarrizko Hezkuntza egiterakoan irakasgai hori ikasi ez izana, dokumentu idatziaren bidez egiaztatzen badute.

AZKEN XEDAPENA

2001eko martxoaren 15eko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren Agindua (2002ko urriaren 21eko aginduaren bidez aldatua), 18 urtetik gorakoek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua lortzeko proba libre ezartzen duena, aplikatuko da ebazpen honetan agertzen ez diren gaietarako. Aldi berean, 77/2023 Dekretuak, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (2023ko ekainaren 09ko EHAA)

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 16a

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA

Begoña Pedrosa Lobato



I. ERANSKINA / ANEXO I

MATRIKULA-ORRIA / HOJA DE MATRÍCULA**2023-2024 IKASTURTEKO DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATUKO PROBA LIBREA**

PRUEBA LIBRE DE GRADUADO EN EDUCACIÓN SECUNDARIA OBLIGATORIA CURSO 2023-2024

Ikastetxea / **Herria/**
Centro **Localidad:**

1. Abizena / Apellido 1º **2. Abizena / Apellido 2º** **Izena / Nombre**

N.A. / D.N.I. **Helbidea (kalea, zenbakia,...) / Dirección (calle, número,...)**

Herria / Localidad **P.K. / C.P.** **Lurraldea / Territorio**

Jaioa / Nacido en: **Herria / Localidad** **Lurraldea / Territorio** **Data / Fecha**

Atzerritarra izanik, jaioterria / Si es extranjero/a, país de origen

G/V **E/M** + **Telefonoa:**

Helbide elektronikoa / Correo electrónico:

Azterketa egiteko hizkuntza / Idioma en que realizará la prueba: Euskera
 Castellano

Aukeratutako atzerritar hizkuntza / Lengua extranjera elegida:

Ingelesa/Inglés **Frantsesa/Francés** **Alemana/Alemán** **Portuguesa/ Portugués**
Italiera/Italiano

Salbuespenik edota baliozkotzerik eskatuz gero, adierazi (ikusi 5.c artikulua):

Solicita exenciones y/o convalidaciones en (ver artículo 5.c):

Komunikazioa **Gizartea** **Zientzia eta Teknologia**
 Comunicación Social Científico-Tecnológico

Euskara salbuespen eskaera
 Solicitud exención euskera

Goian adierazitako pertsonak hauxe adierazten du: Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua araubide ofizialean (eskoletara joanez edo urrutiko hezkuntzan) lortzeko ikasketa ofizialetan matriculatuta ez dagoela 2023-2024 ikasturtean.

La persona arriba indicada declara no estar matriculada en enseñanzas oficiales conducentes al título de Graduado en Educación Secundaria en régimen oficial (sea presencial o sea a distancia) en el curso 2023-2024.

Data eta sinadura / Fecha y firma:

Naren fotokopia gehitu beharko da. / Debe adjuntarse fotocopia DNI.



II. ERANSKINA / ANEXO II

20 / _ / _ / _ / _ / 20

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATUKO PROBA LIBREAK
PRUEBAS LIBRES DE GRADUADO EN EDUCACIÓN SECUNDARIA OBLIGATORIA
EBALUAZIO-AKTA / ACTA DE EVALUACIÓN

IKASTETXEA/CENTRO: KODEA / CÓDIGO: 01 _ _ _ ; IZENA / NOMBRE: _____
 HELBIDEA/DIRECCIÓN: _____ K.P. / C.P.: _____
 HERRIA/LOCALIDAD: _____ LURRALDEA/TERRITORIO: _____

PARTE HARTZAILEEN ZERRENDA ALFABETIKOA				KALIFIKAZIOAK / CALIFICACIONES (1)							
RELACIÓN ALFABÉTICA DE PARTICIPANTES											
1. Abizena Apellido 1º	2. Abizena Apellido 2º	Izena Nombre	Komunikazioa Comunicación		Gizartea Social		Zientzia eta Teknol Científico-Tecnol		Orokorra Global		Propuesta Título
1.-											
2.-											
3.-											
4.-											
5.-											
6.-											
7.-											
8.-											
9											
10.-											
11.-											
12-											
13.-											
14.-											



15.-												
16.-												
17.-												
18.-												
19.-												
20.-												
21.-												
22.-												
23												
24.-												
25.-												
26.-												
27.-												
28.-												
29.-												
30.-												

------(e)n, 20__ko------(a)ren------(a)
 En _____, a ____ de _____ de 20__
 Eremu bakoitzeko ebaluazioaren arduraduna / El/La profesor/a responsable de la evaluación de cada ámbito:

Epaimahaiburua
 El La Presidente del tribunal

Komunikazioa
 Comunicación

Gizartea
 Social

Zientzia eta teknologia
 Científico-tecnológico

Zentroaren zuzendaria
 El/La directora/a del Centro

(1). **Eremuen kalifikazioak** 9.1 artikularen arabera adieraziko dira. **Kalifikazio orokorra** 9.2 artikularen arabera adieraziko da.
 Las **calificaciones de los ámbitos** se expresarán según lo previsto en el artículo 9.1. La **calificación global** se expresará en los términos previstos en el artículo 9.2.



III. ERANSKINA

_____-(e)ko _____ Urrutiko

Hezkuntzako Euskal Institutuaren idazkariak, **HAUXE EGIAZTATZEN DU:**

Dagokion aktan adierazten denaren arabera _____
_____, _____ NA zenbakia duenak, Derrigorrezko Bigarren
Hezkuntzako graduatu titulua lortzeko proba libreetan parte hartu du, 2018ko
_____aren ___ an. Hauek dira emaitzak¹:

Eremua	Komunikazioa	Gizartea	Zientzia eta Teknologia
Emaitza			

Kalifikazio Orokorra: _____ / _____

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua lortzeko proposatua: _____

_____, 20__ko _____-(a)ren _____(a)

(sinadura eta zigilua)

Idazkaria

O. E.
Zentroaren
zuzendaria

¹ **Eremuen kalifikazioak** era kualitatiboan zein kuantitatiboan adieraziko dira: Gutxiegi (4), Nahikoa (5), Ondo (6), Oso Ongi (8), Bikain (10), Baliozkotua eta Ez aurkeztua. **Kalifikazio orokorra** ere horrela adieraziko da, gehienez ere bi hamartarrekin.